BIURDANA BHI

EUSKALKIAK.
FRESKATZE 2006-7

PROIEKTUA:
JOSE FELIX ELIZONDO ETA NIEVES AICUA.

IRAKASLEA: Yolanda Olasagarre.

DATA: 2007ko martxoaren 16a

1.-GURE ZENTROKO DIAGNOSTIKOA. 2

- Ikasleen tipologia: 2
- Irakasleen tipologia 2
- Gurasoen tipologia 2
- Aldeko jarrera horrelako proiektu baten aurrean, bai ala ez? 3
- Euskararen egoera ikastetxean: 3

2.-HASI BAINO LEHEN HARTU BEHARREKO ERABAKIAK ETA OINARRIAK. 3

3.-HELBURUAK 4

- Orokorrak 4
- Zehatzak 4

4.-EDUKIAK 4

5.- BITARTEKOAK 5

6.-METODOLOGIA 5

7.-JARDUERAK 5

8.-EPEAK 6

9.-EBALUAZIOA. 6

10.-PROIEKTUA AURRERA ERAMATEKO AURREIKUSTEN DITUGUN ARAZOAK. 6

11.-EUSKARA DEPARTAMENTUAREKIN HITZ EGIN ONDOREN. 7

EUSKALKIAK IKASTETXEAN
BHI BIURDANA

1.-GURE ZENTROKO DIAGNOSTIKOA.

Hasteko, geografikoki gure zentroa kokatzea ezinbestekoa da. Gure zentroa, Iruñerrian dago. Honek hainbat ezaugarri orokor ematen dizkigu: ikasle eta guraso gehienak erdaldunak jatorriz, eta euskalkirik ez dagoen eskualdea.

- ***Ikasleen tipologia**:*

Biurdana BHI D ereduko zentroa da eta 500 bat ikasle ditugu DBHn eta Batxilergoan banatuta. Ikasleen jatorriari dagokionez, gure institutuan bi talde bereiztu behar ditugu:

§ DBHko 1. zikloa: Ikasle hauek, nagusiki, institutuak atxikituta dituen Iruñerriko zentroetatik datoz: Sanduzelai, Amaiur eta Alde Zaharreko ikastetxeak. Ikasle hauek gehienek gaztelania dute ama hizkuntza eta beraien arteko harremanetarako erabiltzen dute. Esan daiteke euskararen erabilera arlo akademikora mugatzen dutela gehienbat.

§ DBHko 2. zikloa eta Batxilergoa: DBHko 3. mailan 1. zikloko ikasleei Irurtzungo eta Lekunberriko ikasleak gehitzen zaizkie. Azken hauetako zenbaitengan (Lekunberritik datozenengan, batez ere) nabaritzen da euskara maila altuagoa dela eta, euskara akademikoa ez ezik, etxean ere euskaraz hitz egiten dutela. Hala ere, euskararen erabilerari dagokionez, esan daiteke ez dutela institutuaren profila asko aldatzen portzentajetan pisu gutxi dutelako eta beraien arteko harremanetan gaztelania nagusia delako.

- ***Irakasleen tipologia***

Biurdana BHI institutuan aritzen diren irakasleen laurdenak-edo euskaldun zaharrak dira baina haien jatorria ez da uniforme; hau da, Euskal Herriko hainbat lekutakoak dira: Leitzarrak, Bortziriarrak, Bizkaitarrak, Gipuzkoarrak, Ultzamarrak, Sakandarrak... e.a. Gainontzekoak euskaldun berriak dira. Beraz, irakasleen artean ere euskara batua da erabiliena. Hori dena dela eta, zaila izango genuke Larraun aldeko euskalkia erabiltzea irakasleok, guk geuk ezagutzen eta erabiltzen ez dugulako.

- ***Gurasoen tipologia***

Gurasoen tipologia, ikasleen tipologiarekin lotu behar dugu nolabait. Goian aipatu dugunez, DBHko 2. ziklora etxean euskaraz egiten duten ikasle gutxi datozkigu. Beraz,

ondoriozta dezakegu beren familiakoak ere euskaldun zaharrak direla. Gainontzeko ikasleen guraso gehienak erdaldunak dira eta portzentaje txiki batean euskaldun berriak dira: hauetako batzuek ederki hitz egiten dute batuaz eta beste batzuek euskaraz dakiten arren, maila baxuagoa dute.

- ***Aldeko jarrera horrelako proiektu baten aurrean, bai ala ez?***

Gai honi dagokionez, ez dugu uste ikasleen eta gurasoen jarrera ez aldekoa ez kontrakoa izango denik orain arte horrelako planteamendua egin ez delako. Eskola Kontseiluan euskara bultzatzeko ekimen guztiak onartzen dira problemarik gabe eta gogo onez. Hala ere, guraso eta ikasle gehienen tipologia (euskaldun zahar gutxi...) kontuan izanda, ez dugu uste proiektu hau (euskalkiak ikastetxean) kezka nagusitzat dutenik.

Irakasleak, zuzenki inplikatuta daudenak kenduta, hau da, Euskara departamentukoak, zaku berean sar daitezke. Ez du inork trabarik jarriko, baina, salbuespenak salbuespen, ez dugu espero behar laguntza handirik emango dutenik. Horren arrazoiak ondoko hauek izango lirateke: irakasle gehienek ez dute euskalki hori ezagutzen; hori ikastea lan gehiago ekarriko lieke; batzuek nahikoa dute batua ondo hitz egin eta ikastearekin.

- **Euskararen egoera ikastetxean:**

Gure zentroan Iruñerriko beste ikastetxeetako antzeko egoera dugu. Euskara bultzatzeko, bai eskola orduetan bai eskolaz kanpoko ekintzetan, ahalegin ikaragarria eta etengabea egiten badugu ere, ez da aparteko hobekuntzarik ikusten. DBHn gora egin ahala, ikasleek gradualki euskararen erabilera galtzeko joera dute eta, lehen esan bezala, arlo akademikora gero eta gehiago mugatzen dutela ematen du. Egoera honen arrazoiak aztertzeko eskolaz kanpoko baldintzen analisia egin behar da:

- Hedabide gehienek gaztelaniaz komunikatzen dute. Beraz, ikasleek apenas ez dute euskarazko erreferentziarik arlo honetan.
- Familia gehienen baitan ez da euskaraz hitz egiten. Horretaz aparte euskaraz ikasteaz gain, gerta daiteke hainbat gurasok beren seme-alabak D ereduan matrikulatzen dituztela euskal adarreko ikastetxeetako baldintzak zentro erdaldunetan baino hobeak direlakoan: etorkinik ez dagoelako, giro lasaiagoa, masifikazioa ez da hain nabarmena eta harremanak, oro har, hurbilagoak direlako.

2.-HASI BAINO LEHEN HARTU BEHARREKO ERABAKIAK ETA OINARRIAK.

Proiektu hau behar bezala aurrera eramateko institutuko departamentu guztiek parte hartu beharko lukete eta beraien programazioetan nolabaiteko isla izan beharko luke. Horretarako klaustroan eztabaidatu eta adostasun batera ailegatu beharko

genuke. Hala ere, lehen arrazonatu dugun bezala ez dugu uste irakasle askok parte hartu nahiko dutenik proiektu honetan.

Horregatik proiektu hau mugatu nahi izan dugu Euskara departamentura.

Proiektu honen helburua oso xumea da eta honako puntuen hurrenkeran laburbil daiteke:

- § Euskara Departamentuak abiapuntutzat har lezakeen azaleko programazio bat egitea.
- § Departamentu horretan gai honen inguruan hausnarketarako eta eztabaidarako bidea piztea.
- § Euskara irakasgaiaren programazioan euskalkiei tartetxo bat egitea Euskara Departamentuak hala erabakitzen badu.
- § Euskalkien gaineko programa garatzea eta DBHko 2.zikloko programazioan txertatzea.

3.-HELBURUAK.

- ***Orokorrak***
  - § Euskalkiak euskara aberasten duten erregistro bezala ulertzea.
  - § Euskalkiak euskararen ahozko transmisioarekin lotzea.
  - § Iruñeko eta herrietako ikasleen arteko harremanak sendotzea.

- ***Zehatzak***
  - § Lekunberri eta inguruko herrietako euskalkia ezagutzea. (Hau horrela erabaki dugu gure ikasleen artean, herrian, familian, euskalki batez hitz egiten dutenak eskualde horretakoak direlako)
  - § Euskalkiak bereizteko ezaugarri inportanteenen aldaerak ikastea: azentua, aferesia, sinkopa, bustidurak,..etab.
  - § Beste euskalki batzuetatik bereizten jakitea.
  - § Eskualde horretako bizimodua, festak, ohitura bereziak ezagutzea eta, bide batez bertako hitzekin eta esaerekin hiztegia aberastea.

4.-EDUKIAK

Lehen aipatutako helburuekin lotuko ziren.

- o Bonaparteren eta Koldo Zuazoren euskalkien mapak ezagutu.
- o Gero mapan kokatu aukeratu dugun euskalkia.

- Euskalkien artean dauden ezaugarri bereizgarriak eta beren aldaerak ikasi: azentua, aferesia, sinkopa, hitzen bukaera, goranzko diptongoa, j-ren ahoskera, ablatiboko morfema, Edun-en erroa, geroaldiko forma, ahalera, eperentesia, bustidurak,..etab.
- Eskualde horretako grabazioak entzunez eta beren transkripzioak irakurriz aurreko puntuko ezaugarrien aldaera identifikatu.
- Beste eskualde batzuetako grabazioekin ezaugarrien aldaera desberdinak direla konprobatu.
- Aukeratutako euskalkiko hitzak eta esamolde bereziak ezagutu.

5.- BITARTEKOAK

- Eskualde horretako grabazioak: eginak dagoeneko egon daitezkeenak edo ikasleek beraiek egin ditzaketenak.
- Beste eskualde batzuetako grabazioak.
- Gutxienez, sei bat grabagailu (MP3 motakoak)
- Informatika gelako ordenagailuak egokitu behar dira grabazioak entzuteko (aurikularrak eta software egokia grabazioak entzuteko. Hau guztia lortzea ezinezkoa bada, 6 MP3 erreproduzitzaileak eta bozgorailuak erosi beharko lirateke.
- Material idatzia ere interesgarria izan daiteke.
- Bertako ikasleek aldez aurretik prestaturik izango duten kontaketa: jaiak, ohiturak.....

6.-METODOLOGIA

Hasiko ginateke 2.zikloan. Horregatik soilik 3. edo/ eta 4. mailak inplikatuko genituzke hasieran. Gero Batxilergoko I. mailan ere jarrai daiteke. Hau, Euskara departamentukoek baloratu beharko lukete.

Erabiliko den metodologia nahiko aktiboa izango litzateke. Alde teorikoa, hau da, euskalkiak ezberdintzeko ezaugarriak eta beren aldaerak taulen bidez azalduko dira. Gero barneratzeko ikasitakoa jarduera ezberdinen bitartez lortzen saiatuko litzateke.

7.-JARDUERAK

1. Lehen esan dugun bezala, Bonaparteren zein Zuazoren mapak ezagutu eta bertan kokatu hainbat herri ezagun jakiteko zein euskalkitan dauden jakiteko. Gero ondo kokatu interesatzen zaigun euskalkia.

2. Irakasleak, euskalki horretako idazkiren bat klasean landuko luke, edo grabazioren bat entzungo lukete ikasleek (egina baldin badago, bestela Lekunberriko ikasleek beraien herrian grabaketaren bat egin dezakete). Horrela bertako ezaugarriak barneratzeko aukera izango lukete.
3. Horretaz aparte, Lekunberriko eskualdeko ikasleek ere zerbait (bere herriko ohituraren bat, jai bereziren bat...) ahoz kontatuko lukete, bere euskalkia erabiliz, besteek ezagutzen ez dituzten hitz bereziak, esamolderen bat...sartzeko. Bitartean, beste ikasleek apunteak hartuko lituzkete zein hitz berezi, ezezagunak agertzen diren konprobatuz.
4. Irakasleak emaniko euskara batuan idatzitako testu batetan ikasleek ikasitako hitzekin edo esamoldeekin ordezkatuko lukete.

8.-EPEAK

Hiru ebaluaketetan edo bakar batean landuko litzateke. Hau Euskara departamentuak erabaki beharko luke. Ziur aski, ebaluaketa aproposena, bigarrena izango litzateke, lasaiena delako.

9.-EBALUAZIOA.

Irakasleak lortutako maila egiaztatuko luke azterketan. Berak ikusi beharko luke azterketa hori ahoz ala idatziz izango den.

Ebalua daitezkeen aspektuak:

- Edukietan landu dituenak: euskalkiaren ezaugarriak, landutako mapak, hitz batzuen sinonimoak euskalkiren hitz propioak erabiliz....
- Euskalkiarekiko lehendik ikasleek zuten iritzia aldatu den...
- Ea orain euskalkiari dagokion hitzaren bat erabiltzen duten...
- Euskalkiari dagozkion aspektuak barneratzea zaila egiten zaien....

10.-PROIEKTUA AURRERA ERAMATEKO AURREIKUSTEN DITUGUN ARAZOAK.

Guk planteatu dugun bezala, ez dugu arazorik ikusten, Euskara departamentuaK onartzen badute.

11.-EUSKARA DEPARTAMENTUAREKIN HITZ EGIN ONDOREN.

Euskara departamentuko programazioan euskalkiak dagoeneko kontenplatuta daude eta landu egiten dira.

Departamentu buruak programazioa erakutsi zigun eta bertan DBHko 1. eta 2 mailetan euskalkiak lantzen dira: 1. DBHn, euskalkien eremu geografikoa eta ezaugarri orokorrak ikasten dira; gero 2. DBHn, berriz euskalki literarioak.

Batxilergoari dagokionez, 1. mailan euskalkiak AHOZKO LITERATURA unitate didaktikoaren azpiatal batean lantzen dira. Hala ere, era formalean eta gainetik jorratzen da.

Gure konklusioa: gure institutuan euskalkiak lantzen badira ere, modu teoriko batean egiten da gehien bat eta ez guk hemen planteatu dugun moduan.